

# eingo **n**au!

> 2011ko martxoa

4.

Martxoak 8

Agenda

Ikerketa beka

Tailerrak eta ikastaroak



BFA  
DFB

Baskoien Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzaria

BFAk diruz lagunduta



## EMAKUMEEN EGUNA, INAUTERIETAN

Sorginak eta sorginen ehiza;  
mitologia eta ipuinetik errealitatera.

Sorginen inguruko hainbat pasadizo daude, herri bakoitzak berea dauka. Baina euskal mitologia albo batera utzita, badago dokumentatuta dagoen gertakari orokor bat: inkisizio garaian, Euskal Herrian, emakume mordoa baztertu, torturatu eta erail zuten sorginkeria leporatuta. Emakume hauek belau-naldiz-belaualdi ama eta amamengandik jasotako herri jakituriaren jabe ziren; belarrak, ukenduak... gaixoak sendatzen zituzten, emaginak, erizainak, medikuak... ziren. Praktika hauengatik, inkisizio garaian, emakume asko eta hainbat gizoni ere sorginkeria leporatu zioten.

Garai hartako zientziari, estatuari eta elizari ez zitzairen komeni belaualdiz belaualdi transmititzen zen jakituria herriak edukitzea. Gizarte beldurtu, ezjakin eta menperatua komeni zitzairen. Europako hainbat herrialdetan gertatu ziren «sorginen ehiza» hauek. Euskaldunontzako sorginen ehiza ezagunenetakoa, 1610.ean, inkisizioak antolatuta, Zugarramurdi izan zen. Sorginkeria leporatuta, 53 herritar Logroñora eraman zituzten azaroaren 7an. Han, autofedea egin zen. 53 atxilotuetatik 21eri delitu txikia leporatu zieten, eta beste 21 barkatu. Gainontzeko 11k sutan hiltzera zigortu zituzten. Eta horietatik 5 izurrite baten ondorioz kartzelan hil ziren, sutara eroan baino lehen. Beraz, erre zituztenean, hilda zeuden; gainontzeko 6ak bizirik erre zituzten.

Aurten martxoaren 8a inauterietan dela kontuan hartuta, emakume – sorgin hauei guztiei gure omenalditxoa egin gura diegu. Berrizko sorgintxo eta sorgin guztiak inauterietan ondo pasatzera gonbidatu nahi ditugu, eta sorgin izaten jarrai dezagun! Sasi guztien gainera, laino guztien azpitik...

### DIA DE LA MUJER EN CARNAVALES

#### Brujas y caza de brujas; desde las leyendas a la realidad.

*Hay muchas historias entorno a las brujas; cada pueblo tiene la suya, pero dejando de lado, la mitología vasca, existe una historia documentada: la exclusión, tortura y asesinato de mujeres, en Euskal Herria acusadas de brujería por la inquisición.*

*De generación en generación, estas mujeres, transmitían los saberes de sus madres y abuelas; hierbas, pomadas... sanaban, ayudaban en los partos... eran matronas, enfermeras, médicos. A raíz de estas prácticas, muchas mujeres y algunos hombres, fueron acusadas de brujería en la época de la inquisición.*

*A la ciencia, estado e iglesia de la época, no les convenía que el pueblo conociese y utilizase su sabiduría...; preferían mantenerlos asustados, analfabetizados y sometidos al poder. Estos procesos se vivieron en toda Europa y la caza de brujas más conocida para la sociedad vasca, fue la sucedida en Zugarramurdi en 1610. 53 personas fueron acusadas de brujería, arrestadas y trasladadas a Logroño. Según el auto de fe del 7 de noviembre, 21 personas fueron perdonadas, otras 21 condenadas por delito menor y 11 condenadas a ser quemadas en la hoguera. De estas 11 personas, 5 murieron en la cárcel a raíz de una supuesta epidemia*

*Este año, teniendo en cuenta que el 8 de marzo son carnavales, queremos visibilizar a todas estas mujeres-brujas. Invitar a todas las brujas y brujillas de Berriz a que disfruten del carnaval y sigamos siendo brujas!*  
Sasi guztien gainera, laino guztien azpitik...

## DURANGALDEKO ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIORAKO I. PROTOKOLOA INDARKERIA SEXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ARRETA HOBEA EMATEKO

Durango, 2011ko urtarrilaren 28an sinatu zuen Berrizko udalak, Abadiño, Durango eta Elorriokekin batera. Koordinazio horretan Osakidetza, Ertzaintza eta Durangaldeko Mankomunitatea bertsitzen dira. **I. Koordinazio protokolo honen helburuak hauek dira, besteak beste:**

- Erakundeak izatea emakumeari, informazioa, baliabideak eta babesa ematen dizkietenak, eta horien arteko koordinazioan, erakundeak aktiboak izatea, emakumeen oniritziarekin, beharrezkoa den informazioa trukatzu. Hau da, baliabideak emakumearen zerbitzura, era eskuragarrian ipintzea eta erraztasunez.
  - Kasuak benetan ezagutzea, eta prebentzio programak eta baliabideak errealitateko beharrezan egokitzea.
  - Formakuntza planak adostea, erakundeen artean.
- HAU HORRELA BETE DADIN, BEHARREZKOA IKUSTEN DUGU ZERBITZUAK EZAGUTARAZTEA, gure inguruko edozein emakume egon daitekeelako tratu txarrak jasaten, eta informazioa emanez lagun diezaiekegu.**

**ESKURATU DITZAKEGUN BALIABIDEAK:** Aholkularitza juridikoa, laguntza psikologikoa espezializatua, harre-  
ra etxea, salaketarekin batera martxan jartzen diren babes neurriak...

- UDAL GIZARTE ZERBITZUAK 94 6824525 goizetan astelehenetik barikura.
- 24 ORDUKO ZERBITZUA: 900 840 111 doan eta konfidentziala.
- LARRIALDIAK 112 / Ertzaintza: 94 466 94 20

• EMAKUMENGANAKO INDARKERIAREN AURREAN

FRENTE AL MALTRATO SEXISTA CONTRA LAS MUJERES...

### I. PROTOCOLO DE COORDINACION INTERINSTITUCIONAL DEL DURANGUESADO PARA LA MEJORA EN LA ATENCION A MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA SEXISTA

*El ayuntamiento de Berriz, junto con los de Abadiño, Durango, Elorrio y en coordinación con Osakidetza, Ertzaintza y la Mancomunidad del Duranguesado, firmó este primer protocolo en Durango el 28 de enero de 2011. Algunos objetivos de este protocolo son:*

- Impulsar la coordinación entre instituciones que atiendan a las mujeres víctimas de violencia sexista, siendo estas entidades las que se organicen alrededor de las mujeres previa autorización de ellas, para minimizar el coste personal y la revictimización de las mismas. Traslado de la información necesaria y activando los recursos necesarios.
- Conocimiento real de la casuística para establecer programas de prevención y servicios adecuados a la realidad.
- Adoptar planes de formación necesarios.

**ES NECESARIO QUE LA POBLACION CONOZCA LOS SERVICIOS DISPONIBLES para poder informar y ayudar a las mujeres que conocamos y estén o puedan estar sufriendo alguna situación de maltrato sexista.**

**UTILIZA LOS RECURSOS DISPONIBLES:** Asesoría jurídica, apoyo psicológico especializado, pisos de acogida, activación de medidas de protección.

- SERVICIOS SOCIALES DE BASE: 94 682 45 25, horario de mañana de lunes a viernes
- SERVICIO 24 HORAS: 900 840 111, gratuito y confidencial.
- EMERGENCIAS 112 / Ertzaintza 94 466 94 20

n!  
Martxoak 8  
EMAKUMEON EGUNA



GOGORATZEN?  
I.  
AÑEKETAN  
• 2010 •  
IAZKO  
ARGAZKIAK

• martxoak 8, martitz.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA  
ETA INAUTERIAK .

15:30ean, eskolako patioan (eguraldi txarrarekin, soinketa gelan) MAKILLAJE, JANTZI ETA PERKUSIO TAILERRAK egongo dira neska-mutilentzat.

18:30ean, KALEJIRA eskolatik Urtiaga plazara.

19:00etan, ELKARRETARATZEA Emakumeen Nazioarteko eguna Urtiaga Plazan.

Ondoren, Zugarramurdiko sorgiñei OMENALDIA ETA TRIKI POTEOA: aldarrikapena eta jaia uztartuko ditugu.

• martxoak 11, barikua

Emakumeok plazetan. MAHAINGURUA 5-6 LH. Bazkalostean, liburategian. Hizlariak: Miren Amuriza bertsolaria eta Miren Urkiola harrijasotzailea.

• martxoak 12, zapatua

Hau ez da kalkuta. ANTZERKIA. Karrika. 20:00etan. Sarrera: 5 € . Euskaraz.



• martxoak 13, domeka

II. AÑEKETAN. Txapliguarekin hasiko da. Iazko petoa ekarri. Ostein, LUNTXA ETA MUSIKA, Olakueta Plazan. Sariak: euskal txapel lila eta liburuak.

Izena emateko: telefonoz, erregistroan izena ematean edo emailez. (Beharrezko datuak: izen-abizenak, helbidea, kontaktua eta jaiotze data. Norbaitek frontoiko dutexak erabili nahi baditu, esan izena ematean)

*Traer el peto del año pasado. Inscripciones, por teléfono, por mail o en el registro. (Datos: nombre, apellidos dirección, contacto y fecha de nacimiento. Si alguien quisiera utilizar las duchas del frontón notificarlo en el momento de la inscripción).*

• martxoak 19, domeka

“ESPASIO HUTSAK” ANTZERKIA. Higa-antzerkia. 20:00etan, kultur etxean. Sarrera: 5 €. Euskeraz.

Antzerki partitura sail baten oholtzaratzean datza antzezlan. Testu poetikoa ardatza izanik, zirriborroak sortzen dira gorputzarekin eta ahotsarekin. Hiru aktore, olerkiak, mugimendua eta hotsak. Hauek dira Espazio hutsakikusizunaren osagaiak. Bertan, ikuslea sentsazioz betetako unibertso batean biltzeko asmoz.

# IKERKETA BEKA: EMAKUMEEK BERRIZKO HISTORIARI EGINDAKO EKARPENA

**B**errizko Udaleko Berdintasun sailak ikerketa beka baten deialdia egin du. Historian, gehienetan, ez dira emakumeen ekarpenak jaso, eta horregatik, gaur arte, ezkutuan egon dira emakumeen lana eta eragina bizitza sozialean, ekonomikoan eta politikoa. Ikerketa beka honekin, Berrizko herriari, emakumeek egindako ekarpenei buruzko kalitatezko ikerketa egin nahi da.

**1 .Ikerketaren gaia.** Berrizko emakumeek historian herriari egindako ekarpenak lan arloan eta bizitza sozial, ekonomiko, politiko zein kulturean.

**2 .Ikerketaren iraupena.** Ikerketak urte eta erdiko iraupena izango du, beka esleitzen den egunetik kontaktzen hasita.

**3 .Azken produktua.** Beka esleitu eta urtebetera, idatzizko produktua aurkeztu beharko da, eta bukaeran, ikus-entzunezko euskarria, ikerketaren emaitzak islatuz. Euskarri horren eraketa librea da, dokumentala, film laburra, elkarrizketa formatua... egileak eta taldeak erabakiko du.

**3 .Onuradunak.** Beka norbanakoek zein helburu honetarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, nortasun juridikorik gabeko pertsona fisiko-en taldeak ikerketaren zuzendaria izendatu beharko du.

**4 .Izen-ematea.** Izen-ematea eta agirien aurkezpene Berrizko Udaleko erregistro nagusian egin beharko da. Izena emateko epea, iragarki hau BAO n argitaratzen den biharamunetik kontaktzen hasita, hilabete-koa izango da.

Aurkeztutako dokumentazioa osatu gabe balego edo oinarrietako baldintzaren bat betetzen ez badu, interesdunari 10 eguneko epea emango zaio akatsak zuzendu edo dagokion dokumentazioa aurkezteko.

**5 .Aurkeztu beharreko dokumentazioa.**

-Izen-emate eskaera: izen-abizenak, helbidea, NAN zenbakia, harremanetarako telefonoa eta helbide elektronikoa idatzi beharko dira.

-Curriculum eta espediente akademikoa: egindako ikasketa eta ikerketak zehazten dituena. Lan taldeen kasuan partaide guztiena aurkeztu beharko da, ikerketa zuzendariaren zehaztapenarekin batera.

-Zerga obligazioak egunean dituela adierazten duen agiria.

-Proiektu proposamena: 10 orrialdekoa, gehienez. Bertan, ondorengoak jasoko dira:

- Lanaren ikerketa esparrua.

- Aurrekariak eta gaiaren

gaur egungo egoera.

-Ikerketaren helburuak, plangintza eta kronograma.

-Berrizko Udalak, berdintasun sailaren bitartez, egoki deritzon informazio osagarria eska diezaiokoe interesdunari.

**6 .Bekaren zenbatekoa.** Udalak 16.000€-ko diru laguntza emango du. Ikerketan sor daitzkeen gastu guztiak bekaren onuradunaren kontura izango dira.

**7 .Ordainketa modua.** 6.000€ bekaren onuraduna izendatutakoan ordainduko dira. Beste 5.000€, 6 hilabete igarotakoan aurkeztutako proiektuarekin batera. Azken 5.000€-ak behin betiko txostena aurkeztutakoan ordainduko dira. Bigarren ordainketa zatia jasotzeko, proiektu hau aurkeztu beharko da:

-Ordura arte egindako lana.

-Hasierako proiektuari egindako funtsezko aldaketan zehaztapena (egin baldin badira).

-Hurrengo 6 hilabeteetako lanerako plangintza.

**8 .Hizkuntza.** Udalarari aurkeztu beharreko dokumentazio guztia euskaraz egongo da.

**9 .Onuradunaren betebeharrak.**

-Oinarri hauetan jasotakotik eratorritako erabaki guztiak betetzea.

-Bekaren helburuei lotutako lan programa garatzea.

-Lanaren jabea egilea bera izango da. Berrizko Udalak ikerketaren argitalpen osoa edo zatirikoa egiteko eskubidea izango du, baita bekadunak udalean aurkeztutako txostenak egoki deritzonari helarazteko ere.

Berrizko Udalak lana argitaratzea erabakitzen badu, horren berri eman beharko dio

## APORTACION DE LAS MUJERES DE BERRIZ A SU HISTORIA

El área de igualdad del Ayuntamiento de Berriz, convoca una beca de investigación. La mayoría de las veces, la historia no recoge las aportaciones de las mujeres y queda escondido el trabajo de las mujeres, y las consecuencias en la vida social, económica y política.

Con esta beca de investigación, se quiere conseguir un trabajo de calidad que refleje la aportación de las mujeres al pueblo de Berriz.

**1. Tema de investigación.** Las aportaciones tanto a nivel de trabajo, vida social, económica, política o cultural que hayan realizado las mujeres de Berriz al pueblo.

**2. Duración de la investigación.** Desde el día de la adjudicación de la beca la duración del estudio será de un año y medio.

**3. Material.** En el plazo de un año se deberá entregar el trabajo escrito, y al finalizar la beca completa, el trabajo en soporte audiovisual, siendo el formato de éste último libre; entrevista, cortometraje documental, para realizar este trabajo, se podrá recurrir a ayuda externa.

**3 .Beneficiarias/os.** Pueden acceder a la beca personas a título propio o grupo de personas, organizadas para realizar este trabajo. En este segundo caso, deberá ser un grupo sin personalidad jurídica y nombrará a una persona que dirija la investigación.

**4 .Inscripción.** Las inscripciones y presentación de documentos se realizarán en el registro general del Ayuntamiento de Berriz. El plazo de presentación de documentos será de un mes a partir del día siguiente a la publicación de esta convocatoria en el BOB.

Si faltase parte de la documentación o no se cumplieren los requisitos de las bases, se facilitará a la persona interesada un plazo de 10 días para la subsanación de errores o presentar la documentación.

**5 . Documentación a presentar**

-Hoja de inscripción: nombre, apellidos, dirección, número DNI, teléfono de contacto y dirección email.

-Curriculum y expediente académico: estudios realizados y especialidades para la investigación. En el caso de presentarse grupos información de todo el grupo especificando la dirección del proyecto.

-Certificado de estar al corriente de las obligaciones tributarias

-Propuesta de proyecto, máximo 10 hojas que deberán recoger:

-Ambito de investigación del trabajo.  
-antecedentes y situación actual del tema.  
-Objetivos de la investigación, planing y cronograma.

-El ayuntamiento de Berriz, mediante el departamento de igualdad, podrá solicitar cualquier información adicional que considere oportuna.

**6.Cuántia de la beca.** La cuantía de esta beca es de 16.000€. Los gastos que surjan durante la investigación son a cargo de las personas beneficiarias.

**7. Forma de pago.** 6.000€ se abonarán en el momento de nombrar el trabajo seleccionado. 5.000,00 € en el plazo de 6 meses cuando se presenta el borrador del trabajo. Y después de otros 6 meses, con la presentación del último informe, el importe restante.

Para hacerse con el segundo abono, se ha de presentar:

-El trabajo realizado hasta entonces.  
-Si se han realizado modificaciones al proyecto inicial, explicación de éstas.  
-Planing de trabajo para próximos 6 meses.

**8 . Idioma.** Toda la documentación que se presente al Ayuntamiento tendrá que estar en euskera.

**9 . Obligaciones de la persona/s beneficiarias**

-Cumplir con estas bases.  
-Desarrollar el planing en consonancia a los objeti-

egileari, eta bost urteko epean argitaratu beharko du. Lehen argitalpen horren ustiapen eskubideak Udalarenak izango dira. Epe hau igarota, egileak (edo egileek) eskubidea izango du lana argitaratzeko, beti ere, jasotako bekaren aipamena eginez. Udalak ikerketa argitaratzeari uko egingo balio, egileak argitara dezake.

-Lanak argitaratu gabea izan beharko du.

**10 .Esleipen prozedura.** Batzorde batek proiektuak ebaluatu eta hautatuko ditu. Batzordea ondorengoek osatuko dute: Berdintasuneko udal teknikaria, Berdintasuneko udal zinegotzia, idazkaria, Berriz gogoratzen elkarte kide bat, EHUko alorreko irakasle bat, Gerediaga elkarte kide bat.

Batzordearen erabakia apelaezina izango da. Erabaki honen berri proiektua aurkeztu duten guztiei emango zaie.

Aurkeztutako proiektuek ez badute behar besteko onspena jasotzen, beka deialdia eman gabe gera daiteke.

Beka jaso gabe geratzen diren proiektuak egileak berak edo honek idatziz baimendutako pertsona batek jaso ditzake erabakiaren berri eman eta gehienez ere 10 eguneko epean.

Oinarrietan jaso gabeko egoera guztiak epaimahaia ebaztziko ditu.

vos de la beca.

-La propiedad del trabajo es de las personas que la hayan realizado. El Ayuntamiento tendrá el derecho a publicar el trabajo o partes de él, dando cuenta de ello a las personas que hayan hecho el trabajo. La publicación se realizará en el plazo de 5 años, transcurrido este tiempo, las /los autores, podrán ejercer este derecho, haciendo mención a la beca.

-el trabajo debe ser inédito.

**10 .Procedimiento de adjudicación.** Los proyectos presentados los evaluará la comisión formada por: Técnica de igualdad del Ayuntamiento, Concejala del área de Igualdad, Secretario, Representante de la Asociación Berriz Gogoratzen, Profesora del Area de UPV, Asociación Gerediaga.

No podrá recurrirse la decisión de la comisión. Y se dará cuenta de la decisión a todas las personas que se hayan presentado.

La beca puede quedar desierta, si se considera que no existe el mínimo nivel requerido.

Los trabajos no seleccionados podrán ser retirados por la persona solicitante o otra acreditada para tal fin en el plazo de 10 días desde la notificación de la decisión.

Cualquier duda que no se haya recogido en estas bases, las decidirá el jurado.



**MIREN AMURIZA PLAZA**  
bertsolari gazte berriztarrari  
2010eko Bizkaiko Bertso  
Txapelketan, sailkapen  
orokorrean hirugarren postuan  
geratu delako, emakumeen  
artetik lehenengo postuan.

Berrizko Udalaren  
izenean ZORIONAK!  
Argazkilaria: Joseba Barrenetxea  
Iturria: Bizkaiko Bertsozale Elkarte

*Felicidades a la berriztarrara Miren Amuriza Plaza, 3er. puesto en el Campeonato de Bertsolaris de Bizkaia 2010.*



**TERESA DEL VALLE** (argazkian, erdian) EHU gizarte antropologiako katedradunak Berdintasunaren Aldeko Emakunde Saria 2010 jaso du, emakumeen egoera soziala ikertu eta argitaratzen egindako lanagatik.

*La catedrática de Antropología Social de la UPV Teresa del Valle ha sido galardonada con el Premio Emakunde a la Igualdad 2010 por su trabajo de investigación y divulgación de la realidad de las mujeres.*

**EMAKUMEEN ENPLEGURAKO  
DIBERTSIFIKAZIO PROGRAMA.**

Azarotik martxora bitartean, Berrizko hainbat emakume tradizioz gizonetzkoek egindako lanak ikasten egon dira.

**Zorionak  
zuen indarragatik  
eta zorte on!**



# Tailerrak eta ikastaroak

F O R M A T Z A  
K U R S O A K  
I K A S T A R O A K  
F O R M A T Z A

Emakumeon IDENTITATEA nola sortzen den, zein ondorio negatibo dituen horrek eta nola aurre egin!

Pertsonaiak, egoerak, testuinguruak, elkarrizketak... antzerkiko hainbat elementu aztertuko ditugu. Emakumeak eta feminitatea nola tratatu edo eta aztertu diren.

**Nork har dezake parte?** Jabekuntza saioetako ikasleek eta edozein emakumek.

**Metodologia:** Antzerki saioak aztertzeko teoria feminista. Eva Esteren *Baginaren bakarrizketak* antzerkia.

**Iraupena:** Ekainaren 17ra arte, BARIKUETAN, 16:00etatik 18:00etara, KULTUR ETXEAN.

**Formatzailea:** Miriam Herbón (Feminista eta Emakumeenganako indarkerian espezializatua).

## ZORU PELBIKOA INDARTZEA!

Bigarren aldiz zerrendak gainezka daude.

**Nork har dezake parte?** Edozein emakumek, iazko ikastaroan egondakoek izan ezik.

**Iraupena:** Apirilaren 18ra arte, ASTELEHENETAN, 18:30etik 20:00etara, KULTUR ETXEAN

**Formatzailea:** Idurre Zabala (Fisioterapeuta)

## GAZTEAK SEXUALITATEA ARTISAUTZA.

3. 4. DBH eta Batxilergoko neskenentzat. Otsailaren 25etik apirilaren 15era, 17:30etik 19:30era, Kultur Etxean. Artea eta feminismoa lotuz, indarkeria sexista era artistiko batean salatzen diren baliabideak ematea: paper eta kartulinazko karterak, karpetak eta egunerokotasunean erabili ditzaketen hainbat tresna.

• Sexualitatearen inguruan hitz egiteko giroa sortzea.

- Indarkeria sexistaren inguruko informazioa ematea.
- Bakoiak emakume izateko erari buruz hausnartzea.
- Emakumeen kontrako indarkeria salatzea.
- Egunerokotasunean erabiltzen dituzten tresnak salaketa baliabide bezala erabiltzeko formakuntza ematea.
- Emakumeen kontrako indarkeria identifikatzen irakastea.
- Indarkeria sexista prozesua ulertaraztea eta honi aurre egiteko baliabideak eskaintzea.
- Neska gazteei beraien bizipenez hitz egiteko eta konpartitzeko espazioa sortzea.

## ZAHARTZE EDERRA!

60 urte ingurura heldu gara, jubilazioa gainean dugu eta heldu da; bilobak baditugu, eskatzen digute, edo gure buruari eskatzen diogu? Bikotea eta biok edo bakarrik... Aldaketa asko! Bitartean, telebistak gazte egoteko eskatzen dit, eta gauza interesgarrienak gazteentzat dira. Lagundu! Nola zahartu beste era batera? Esperientzia, indarra eta gure borroka ez galtzeko zer egin....

### Helburuak

1. Bakoiaren zahartzea onartu eta aldaketa psikologiko eta sozialak ikustea.
  2. Adin honetan dituzten zailtasunak identifikatzea: bikotearekin, seme-alabekin, bilobekin, lanarekin, zaintzarekin, maite dituzten pertsonak galtzarekin...
  3. Bakoiak bere bizitzan eduki dituen baliabideak identifikatzea eta sare sozialak aurkitzea bizi kalitatea mantendu edo hobetzeko.
- Iraupena:** 2 orduko 8 saio / Martxoaren 15etik maiatzaren 17ra / Martitzenetan, 17:00etatik 19:00etara.

**Partaideak:** 60 urte inguruko emakumeak eta beraien zahartzearen inguruan hausnartu nahi dutenak.

**Landuko direnak:**

- Zahartze prozesua, gizartean, ekonomikoki, harremanak...
- Bikote espektatiba eta nahiak, maitasuna da?
- Galerak eta dolua
- Amatasuna ez da bukatzen, ama izan nintzen orain amama...

**Formatzailea:** Inma Merino (Galderak euskaraz egin daitezke, baina eskolak gaztekeraz izango dira).

## GURASOENTZAKO ESKOLAK/

Guraso talde bat osatu gura dogu 2 orduko 2 saio emateko.

Ikastaroaren helburuak:

- Seme-alaben sexu garapenaren inguruan informazioa zabaltzea.
- Familia eta seme-alaben arteko sexu eta genero gaien inguruko komunikazioan eragiten duten faktoreak aztertuko ditugu.
- Seme-alaben sexu garapenean eta harremanetan laguntzeko baliabideak landuko ditugu.

## Lehen Hezkuntzako ikasleen gurasoentzat

Martxoaren 21 eta 23an, 17:30-19:30. Eskolako Liburutegian. Haurtzaindegiz zerbitzua behar izanez gero, eskatu, izena emotean.

## Bigarren hezkuntzako ikasleen gurasoak

Otsailaren 28an eta martxoaren 2an, 18:00-20:00. Institutuan.

**Formatzailea:** Eli Moreno.

## TALLERES Y CURSOS

Cómo se forma la IDENTIDAD de las mujeres, su utilización en negativo y cómo enfrentarse. En este taller utilizaremos como herramienta el teatro para el análisis de personajes, situaciones, contextos, diálogos y otros elementos del hecho teatral. Iremos desgranando cómo se ha tratado a las mujeres y la femineidad a la vez que aprendemos a dirigir nuestra energía creativa en el escenario.

**Participantes:** Alumnas de los cursos de empoderamiento y cualquier mujer que se anime.

**Metodologia:** Teoría feminista para el análisis de los obras teatrales *Ensayos teatrales de los Monólogos de la vagina* de Eve Ester

**Duración:** Hasta el 17 de junio TODOS LOS VIERNES, de 16:00 a 18:00 KULTUR ETXEA.

**Formadora:** Miriam Herbón.

### SUELO PÉLVICO

**Participantes:** Cualquier mujer que se anime, excepto las participantes de la edición pasada.

**Duración:** Hasta el 18 de abril TODOS LOS LUNES, de 18:30 a 20:00. KULTUR ETXEA.

**Formadora:** Idurre Zabala (Fisioterapeuta).

**ENVEJECER BONITO** ¿Qué pasa? Hemos llegado a los 60, la jubilación la tenemos encima, las nietas y nietos están lle-

gando y nos exigen ¿o nos exigimos? Nos hemos quedado cara a cara con nuestra pareja o la hemos perdido... ¡Cuántos cambios! Y mientras los vivo observo cómo la televisión me anima a seguir guapa y cómo las cosas interesantes de la vida solo son para jóvenes. ¡Socorro! ¿Cómo envejecer de otra manera? ¿Cómo lograr que nuestra energía vital, nuestra experiencia, nuestras luchas no se pierdan y las chicas jóvenes la aprovechen?...

### Objetivos

1. Que las participantes reconozcan su proceso de envejecimiento y los cambios psicológicos y sociales que esta nueva etapa de la vida trae consigo.
  2. Que las participantes analicen las dificultades vitales que se les presentan a esta edad en sus relaciones más cercanas: con la pareja, con las hijas e hijos, con las nietas y nietos, con el trabajo y el cuidado, con las pérdidas...
  3. Que las participantes identifiquen recursos valiosos en su historia personal y en sus redes sociales para vivir esta etapa con una mayor calidad y disfrutar de lo que fue y de lo que queda.
- Duración:** 8 sesiones 2 horas. 15 marzo al 17 mayo. Los martes de 17:00-19:00. Kultur etxea
- Participantes:** Mujeres mayores de 60 años o cercanas que quieran reflexionar sobre su envejecimiento o que quieran ver por qué se resisten a él.

### Temario

- El proceso de envejecer: a nivel social, económico, cultural, psicológico, relacional, físico...

- Las exigencias y expectativas en la pareja después de tanta vida en común. ¿Todavía hay amor? ¿En qué se ha convertido esta relación?
  - La maternidad inacabable: primero fui ama, ahora soy amama ¿siempre cuidando?
  - Las pérdidas y duelos que me empiezan a acompañar
- Formadora:** Inma Merino.

## FORMACIÓN A FAMILIAS

Formación para madres y padres, en 2 sesiones de 2 horas.

**Objetivos del curso:**

- Aprender entorno al desarrollo sexual de las niñas y niños.
- Trabajar en la comunicación sobre temas sexuales y de genero entre las familias
- Dotar de recursos a las familias para ayudar en el desarrollo sexual y las relaciones a las hijas e hijos.

### Familias de alumnado de primaria

21 y 23 de marzo, de 17:30 a 19:30. Biblioteca de la Escuela Solicitar servicio de guardería si es necesario en el momento de la inscripción.

### Familias de alumnado de secundaria

28 de febrero y 2 de marzo, 18:00- 20:00, Instituto.

**Formadora:** Eli Moreno.

*Guraso eskola hauetako dinamizatzailearekin solasaldi bat izan dugu. ELI MORENO CARRILLO (Elgoibar, 1974) psikologian lizentziatua da, sexologian masterraduna eta familia bitartekaria.*

**Noiz hasi behar dugu gure seme-alabekin sexuari buruz hizketan? Iniziatiba nork hartu behar du, gurasoek edo seme-alabek?**

Gizakia sexuatu da, alde batera utzi ezin dugun zerbait da, beraz, beti hitz egin behar dugu beraiekin sexualitateaz. Jaio berrietan laztantzen, muxukatzen... sexu heziketa egiten dugu, bere gorputzeko atalen izenak eta funtzioak azaltzean, sexu heziketa egiten dugu. Egia da gaur egun sexualitateak oraindik beldur asko sortzen dituela eta badaudela azaltzea gaitza egiten zaigun gaiak. Jakina, gai hauek dira gure seme-alabekin hitz egitea kostatzen zaizkigunak. Orokorrean, txikitari haurrek hartzen dute iniziatiba, beraiantzat oso naturala delako gaia, baina poliki-poliki erakusten diegu eta ikasten dute gai honi buruz ezin dela edozeinekin hitz egin, ezta edozein modutan ere. Familiak momentu honetan lasai egoten dira, baina nerabezaroa hurbiltzen den heinean, eta lehen aipatu bezala sexualitatea, ez desiratutako haurdunaldiekin, GIB-HIES-aren... lotzen dugunez, sekulako beldurra sartzen zaigu, eta hau izaten da hitz egin nahi izaten dugun momentua. Eta hau da gure seme-alabek hitz egin nahi ez duten momentua, momentua pasa delako, lotsa ematen die-lako eta orain bere lagunak kredibilitate gehiago daukatelako. Beraz, haurtzarotik landu eta nerabezaroan jarraitu behar den gaia da.

**Azken 15 urteotan «sexu heziketan» aldaketarik egon da?**

Aldaketa gehiago egon beharko lirateke, oraindik ere sexualitatea «genitalitatean» zentralizatzen dugu, baina nik uste dut egon, egon direla aldaketak. Gaur egun, profesionalok ezinbestekotzat jotzen dugu sexu bakoitzaren heziketa egitea, eta, gainera, desberdina. Hau da, genero ikuspuntuak programetan txertatuta egon behar du, eta mutilek eta neskek sexu heziketa jaso behar dute, baina bakoitza bere errealitateetik abiatuta eta bere ezaugarriak kontuan hartuz.

**Hezkuntza sistemak hau nola landu behar du? Egiten dana nahikoa da?**

Ez, orokorrean eskasa da egiten dena. Especialistekin egiten diren programak denboran motzak dira, orokorrean ez dute jarraipenik eta berandu hasten dira. Programek lehenengo mailetatik jarraipena eduki behar lukete, eta sistematizatu egin beharko lirateke; onena

curriculumean txertatzea da helburu garbi batzuekin.

**Non uste duzu hezten ditugula neska-mutilak sexu heziketan?**

Heziketan garrantzitsuenak familia eta eskola dira, baina ez ditugu lagun eta komunikabideak (TB, Internet, aldizkariak...) ahaztu behar. Haurtzaroan familia eta eskola erraz heltzen baldin badira haurraren gaitza, nerabezaroan zailtasun handiagoak dituzte, eta momentu honetan lagunak eta komunikabideak dira berarentzat sinesgarriagoak. Hori dela eta, haurtzaroan familiak eta eskolak lan egin behar dute, haurrari ziurtasuna ematen, kritikoa izaten, asertiboa izaten... adin honetara heltzen denean gai izateko erantzun propioak emateko. Bestalde, haurtzaroan familia ondolan izan badu, nerabezaroan berak badaki hori, eta zailtasun gogor baten aurrean jakingo du nora jo.

**Mutilek eta neskek rol desberdinak dituzte sexualitatearekiko edo harremanekiko?**

Bai, oraindik mantentzen dira betiko rolak; oraindik ere neskek mutilei gustatzeko behar hori sentitzen dute, mutilak izan behar dira konkistadoreak... Rol hauekin apurtzea zaila da, orokorrean familietan errepikatzen ditugun rolak baitira (kontziente edo inkontzienteki) eta zer esanik ez, film, ipuin... Disney ikustea besterik ez dago. Hala ere, aldaketa txiki batzuk edo aldaketa nahia badagoela esango nuke eta badagoela gero eta jende gehiago honetan lanean

indartsu ari denik ere. Dударik gabe, esfortzu gutziak beharrezkoak dira.

**Entzuten da albisteetan, haurdunaldien etete kopurua igo dela. Zertan huts egiten dugula uste duzu?**

Uste dut azkenean haurdunali ez planifikatuak jaitsi egin direla eta arrazoia hurrengo eguneko pastilari egotzen diote; beraz, ez da koito harremanetan ohiturak aldatu direla, baizik eta jende gehiagok pastila erabiltzen duela. Haurdunaldi planifikatuak badaude eta honen zergatia uste dut aurreko galderetan erantzun dugula: egiten dugun sexu heziketa ez da nahikoa, ez familian ezta eskolan ere, komunikabideetan bidaltzen diren mezu kontrajarriak, gazteek dituzten sinismen faltsuak, sinistea beraiei ezin zaiela gertatu, beraiek egoera kontrolatzen dutela pentsatzea, ondorio negatiborik ez ikustea, komunikatzeko zailtasunak... faktore askok eragiten dute egoera honetan.

**Aipatu eiguza gurasoentzako bitartekoak sarean eta liburu gomendagarriak.**

Elberdinen *Sexualapikoa*, *La edad del pavo*, *Zergatik gara batzuk neska eta besteak mutil?* Ed T Tartalo, 2000, Madrid.

**Ikastaroa bukatzean zein ideia nagusi eramango dute gurasoek?**

Elkarrizketa hau irakurrita argi geratzen da ideia, edo horrela pentsatzen dut behintzat. Sexualitatea zerbait positiboa da, ez dugu ondorio negatiboetan bakarrik pentsatu behar, baizik eta plazerrean, gozamenen, zirrietan... Komunikazioa gutzi garrantzitsua da, gure seme-alabak jaiotzen direnetik sexuatu daude eta.

Eli Moreno Carrillo (Elgoibar 1974), formadora de los talleres de educación sexual para madres y padres de Berriz:

«Somos seres sexuados desde que nacemos, y sentimos placer, caricias y roces desde este momento, pero al acercarnos a la pubertad, nos distanciamos y aparecen trabas en la comunicación entre familias y las chicas y los chicos.

La educación sexual ha variado en los últimos años incidiendo en las especificidades de chicas y chicos pero todavía arrastramos los roles y modelos de comportamiento diferenciados por sexo y eso dificulta la normalización. Por otra parte, en cuanto al tema preventivo en embarazos hay que incidir más en la educación (empatía, asertividad, competencias sociales...) y no solo en facilitar mera información de métodos preventivos.

Desde la familia lo más importante es la comunicación cuanto más haya desde que la persona nace, más confianza habrá para hablar de ello en la medida que vaya creciendo y teniendo otras necesidades de comunicación».






## DOKUMENTAZIO ZENTROA GOMENDIOAK



CARLOTAREN EGUNKARI URDIÑA, CARLOTAREN EGUNKARI MOREA, CARLOTAREN EGUNKARI GORRIA


Gema Lienas



EL SEGUNDO SEXO, Simone de Beauvoir



MASCULINIDADES EN TELA DE JUICIO, Nerea Aresti



REGINA, EL CORAJE DE UNA MUJER



TEORIA KING-KONG Virginie Despentes



ATRAPADA EN EL ESPEJO Gema Lienas

Emakume garen aldetik, idazleak jorratzen dituen gaiak geure kezka eta sentimenduak adierazteko baliagarriak izan zaizkigu. Barne hausnarketa, gizartea, giza harremanak, emetasuna, maitasuna, ametsak... Honela, gure muinetan pizten diren grinak eta gogoetak adierazi nahi ditugu.

Biribiltasunean, sendotasunean, haitzaren gainean,

a  
e  
i  
o  
u

berri bat esan nahi nuke.



Hurrengo buletinean kontu gehiago, eta badakizu, zalantzak, galderak, proposamenak jasotzeko edota zalantzak argitzeko, deitu edo bidali email bat [berdintasuna@berriz.org](mailto:berdintasuna@berriz.org) -era eta gustura erantzungo dizugu.

En el próximo boletín daremos más información y si tienes dudas, preguntas o quieres proponernos algo, llama o manda un e-mail a [berdintasuna@berriz.org](mailto:berdintasuna@berriz.org) y te atenderemos gustosamente.

## etorriko direnak

PROXIMAS ACTIVIDADES:

- Maiatzak 28 osasunaren aldeko ekintza eguna  
Día de acción por la salud de las mujeres.
- Ekainak 28 askatasun sexualaren eguna  
28 junio, día de la libertad sexual.
- «Beldur barik» II. lehiaketa . Concurso



Zalantzarik izanez gero, informazio gehiago jaso edota izena emateko: 94 682 40 36 edo [berdintasuna@berriz.org](mailto:berdintasuna@berriz.org)